

TXIRRINDULARITZA. Maillot horia ere jantzi du

Davis australiarrak irabazi du Mallorcako Itzuliko hirugarren saioa, esprintean

Erredakzioa | **DONOSTIA**

ONCE-Eroski taldeko Allan Davis txirrindulari australiarrak irabazi zuen atzo Mallorcako Itzuliko hirugarren saioa, esprintean. Erik Zabel (Telekom) alemaniarra eta Gerben Lowik (Bankgiroloterij) holandarra bigarren eta hirugarren izan ziren helmugan. Atzoko etaparen ondoren, Davis da sailkapen nagusiko liderra, nahiz eta etapa bukaeran antolatzaileek maillot horia Zabeli ipini.

Port d'Alcudian irten eta amaitzen zen atzoko saioak, 169,5 kilometro zituen guztira. Aurtengo Mallorcako Itzuliko saio nagusia zen, txirrindulariek lau mendate igo behar baitzituzten, bigarren mailakoak guztiak. Lehen kilometroak lasaiak izan ziren, haizeak gogor jotzen baitzuen. 35. kilometroan, hale-re, dozena bat txirrindularik aurrera egin zuten, eta eguneko ihesaldia osatu. Pedro Horrillo (Quick Step), Erik Zabel eta Oscar Pereiro (Phonak) zeuden hor. Pixkanaka aldea egiten joan ziren, eta Kelme eta ONCE-Eroski taldeek tropel buruan lan gogorra egin arren, minutu inguruko aldea lortu zuten.

Saioko kilometro gehienak ihesi egin zituen talde horrek, haize, euri eta lanbro artean. Eguraldi kaskarra egin arren, txirrindulariek ez zuten amo-


re eman, eta behin eta berriro saiatu ziren ihesaldiak bilatzen. Hala ere, tropelak bere helburua lortu zuen, ONCE-Eroski taldeak eginiko lanari esker, eta taldetxoa harrapatu zuen. Azkenean, esprintean erabaki zen hirugarren saioa, eta lehia horretan Davis izan zen azkarrena.

Mallorcako Itzuliko laugarren saioa jokatuko da gaur, Manacor-Puerto Cristo. Txirrindulariek 166 kilometro egingo dituzte, lauak ia guztiak. Laugarren mailako Son Macia mendatea da eguneko zailtasun bakarra.

Qatarren, Knavenentzat etapa; Loddorentzat Itzulia

Qatarko Itzulian, aldiz, Servais Knaven (Quick Step) holandarrak irabazi zuen bosgarren eta azken saioa. Knavenek bi segundoko aldea atera zien helmugan Olaf Pollack alemaniarri eta Lars Michalsen daniarrari. Sailkapen nagusian ez zen aldaketarik izan, eta Alberto Loddok italiarrak (Lampre) irabazi zuen Itzulia.


Loddok estu eta larri eutsi zion maillot horiari, Damien Nazon frantziarrak eta Pollack alemaniarren lan asko eman baitzioten atzoko saioan. Loddok Pollacken denbora berarekin bukatu zuen Itzulia, baina aurreko saioetan lortutako puntuak erabakigarriak izan ziren.



UNISPORT / EFE

Allan Davis, atzo, Mallorcako Itzuliko hirugarren saioan.

SASKIBALOIA. Simsek eta Longek ere Lituaniara bidaiatuko dute



RAUL BOGAJO / ARGAZKI PRESS

Elmer Bennett, entrenamendu batean, Tau Baskoniako prestatzailearekin.

Tauk Euroligan duen egoera lasiaz baliatuta, Bennettek jokatu egingo du bihar

Allenek, oraingoan, ACB Ligan jokatuko duela azaldu du Ivanovicek

Jon Rejado | **GASTEIZ**

Elmer Bennett Tau Baskoniako kapitain handiak kantxa zapalduko du berriro txapelketa ofizial batean. Dusko Ivanovicek egiaztatu du joko antolatzailearen itzulera, azken asteetako zurrumurrei arrazoia emanez. Entrenatzaileak berak onartu du Bennett ez dagoela sasoi bikainean, baina jakinarazi zuen baita ere, Euroligako egoerak lagundu diola erabakia hartzen: «Lehen postua lortzea zaila zaigu, baina sailkapena lortua dugunez partida egokia izan daiteke Bennettek erritmoa har dezan», esan zuen.

Illinoisen jaiotako joko antolatzailea Europako kantxetara itzuli arren, ACB Ligak denbora gehiago itxaron beharko du jokalaririk erabakigarrietako bat ikusteko. Horrela bada, Baskoniak Jerome Allenen fitxari eutsi egingo dio etxeko txapelketan, Elmer Bennetten sasoi bitartean. Gasteizko taldearen egoera ACBn ez da probak egiten ibiltzeko modukoa, eta horregatik ez dute aurrerapauso handiegirik emango.

Atzerritar fitxekin dantzan

ACB Ligan Allenen fitxari eusteko, ordea, beste arrazoi bat

ESANAK

DUSKO IVANOVIC

(Tau Baskoniako entrenatzailea)

«Txapelketa erritmoa bereganatzen hasteko jokatuko du Bennettek Zalgirisen kontra»

«Bennetten bilakaera ona da, baina, oraingoan, Allenek denboraldi osorako kontratua du»

«Simsek eta Longek bidaiatuko dute, ez baitut erabaki zeinek jokatuko duen»

tzakeen aldaketarik ez du egin nahi Tauk.

Nolanahi ere, Bennetten bilakaera ona bada datozen asteetan, litekeena da Allenen fitxa baliatzea Valentziako Kopari aurre egiteko. Une horretan Allen Tautik kanpo geldituko litzateke, orain Ivanovicek denboraldi osorako kontratua duela azpimarratzen badu ere.

ACB Ligan atzerritar aldaketa mugatuta egoteak, Tauk hila-beterako fitxatu duen Art Long jokalararen parte-hartzea muga dezake. Lituaniara taldeki-deekin bidaiatuko du, Ivanovicek ez baitu oraindik erabaki zeinek jokatuko duen, Simsek edo Longek. Baina Euroligan kirol arloko erabaki bat hartu behar badu, ACBn egoera larritu egiten da, fitxa aldaketa kopuru mugatuarekin egiten baitu topo Ivanovicek.

Longek atzerritar fitxa hartuko balu ACB Ligan hilabete bakar baterako, denboraldi honetako hirugarren atzerritar aldaketa litzateke. Gelditzen diren biak Bennett eta Griffithentzat gordeta daudela kontuan hartzen bada, etorkizunean aldaketak egiteko aukera erabat desagertzen da. Hori benetan arriskutsua da Tauk lesioekin duen zortea ikusita.

dago, eta hori da, ACBk fitxa aldaketetarako ezarri dituen arauak horretara behartzen dutela. Euroligan jokalaririk atzerritarren aldaketek mugarik ez duten bitartean, ACBk ez ditu onartzen bost baino gehiago. Dagoeneko Gasteizko taldeak bi aldaketa egin ditu jada, Allen Bennetten ordez, eta Sims Griffithen ordez jarrita, eta etorkizunean ondorio larriak izan di